## EREDUA:

EGIBIDEn 3 mota artean aukera daiteke:

- **A eredua**: dena gaztelaniaz, eta euskara ikasgaia euskaraz
- **D eredua**: dena euskaraz.
- **B eredua** (Batxilergoan bakarrik): dena euskaraz, matematika eto latina izan ezik.

Aurreko ikasturtean zure seme-alaba egon den gelako letrak ez du zerikusirik ereduekin (baliteke $1_{go}$B mailako ikasgelara joan izana, baina ikasten ari den eredua A da).

## MODELO LINGÜÍSTICO:

En EGIBIDE se puede elegir entre estos 3 tipos:

- **Modelo A**: todo en castellano con la asignatura de euskera
- **Modelo D**: todo en euskera.
- **Modelo B** (sólo en bachillerato): todo en euskera excepto matemáticas y latín.

La letra de la clase en la que haya estado su hijo/a el curso pasado no tiene nada que ver con los modelos lingüísticos (puede haber ido al aula de 1º B y sin embargo el modelo en el que estudia es el A)

## ZER DA EUSKARA-SALBUESPENA?

A ereduan, ikasle bat euskaratik salbuetsita egongo da, baldin eta INOIZ ez bada Euskal Autonomia Erkidegoan matrikulatuta egon edo aurreko urteetan salbuetsia izan bada euskaraz. Salbuespena ikasturtearen hasieran urtero eskatu behar da, ikasturteari dagokion campuseko idazkaritzan.

Eusko Jaurlaritzak salbuespena ematen badu, ikasleak ez du bere burua aztertu beharko, baina bai euskara ikasgaiko eskoletara joan beharko du.

## ¿QUÉ ES LA EXENCIÓN DE EUSKERA?

En el modelo A un alumno/a será exento de euskera si NUNCA ha estado matriculado en el País Vasco o si en años anteriores ha sido exento en lengua vasca. La exención se debe solicitar anualmente a comienzo de curso en la secretaría del campus donde vaya a estudiar.

Si el Gobierno Vasco le concede la exención, el alumno/a no tendrá obligación de examinarse, pero sí de acudir a las clases de la asignatura de euskera.

## ZER BEHAR DU NIRE SEME-ALABAK EGIBIDEN DBH EDO BATXILERGOA IKASTEKO?

Eskolen eta prestakuntzaren jarraipen egokia egiteko, ikasleek honako hauek beharko dituzte:
- Gailu digital bat
- Irakasgai desberdinetako lizentzia digitalak eta paperezko liburuak.
- Interneterako konexioa eskola-orduetatik kanpo lan pertsonalerako

## ¿QUÉ NECESITA MI HIJO/A PARA ESTUDIAR ESO O BACHILLERATO EN EGIBIDE?

Para el correcto seguimiento de las clases y su formación, el alumnado necesitará:
- un dispositivo digital
- licencias digitales y libros en papel de las diferentes asignaturas
- conexión a internet fuera del horario escolar para el trabajo personal

## LIZENTZIA DIGITALAK

### 1. Noiz ematen dira erosi ditudan lizentzien kodeak?

Ikasturteko lehengo egunetan, gelan aktibatuko dira, hezitzaileen laguntzarekin.

Kode hauek pertsonalak eta bakarrak dira. Ikasleak partekatu, zabaldu edo galtzen baditu, eta hirugarren pertsona bat aktibatzeagatik ezin baditu erabili, EGIBIDE ez da erantzule egingo, eta berriro erosi beharko dute.

## LICENCIAS DIGITALES

### 1. ¿Cuándo se facilitan los códigos de las licencias que he comprado?

Durante los primeros días de curso se activarán en el aula con la ayuda de los/las educadores/as.

Estos códigos son personales y únicos. En caso de que el alumno/a los comparta, difunda o pierda, provocando que él/ella no pueda usarlos por activación de una tercera persona, EGIBIDE no se hará responsable y se deberán volver a comprar.

## 2. Nahi diren sarbide gakoak aukera daitezke?

Ez. EGIBIDEko sistema informatikoetako langileek, lizentzien kodeekin batera, ikasle bakoitzari esleitutako pasahitza, helbide elektronikoa eta erabiltzailea emango dituzte. Ikasleak aldatu egiten baditu eta, ondorioz, bere liburu digitalak eskuratu ezin baditu, EGIBIDE ez da izango ikasleak bere konfigurazio osoa berrezarri arte erabili gabe egon dezakeen denboraren erantzulea.

## 2. ¿Se pueden elegir las claves de acceso que se quieran?

No. El personal de sistemas informáticos de EGIBIDE facilitará junto con los códigos de las licencias, la contraseña, email y usuario que cada alumno/a tendrá asignado. En caso de que el alumno/a los cambie dando lugar a que no pueda acceder a sus libros digitales, EGIBIDE no será el responsable del tiempo que el alumno/a pueda estar sin uso hasta que se restaure toda su configuración.

## 3. Noiz arte balio dute lizentziek?

Lizentziak indarrean dagoen ikasturteko irailaren 1etik abuztuaren 31era arte egongo dira aktibo.

## 3. ¿Qué validez tienen las licencias?

Las licencias están activas desde el 1 de septiembre hasta el 31 de agosto del curso en vigor.

## 4. Eros al ditzaket lizentziak denda batean edo Internet bidez?

Gehienak argitaletxe bakoitzeko salmenta-plataformetan eros daitezke. Kasu horietan, EGIBIDEk ezin du bere gain hartu instalazioa eta mantentze-lanak.

## 4. ¿Puedo comprar las licencias en una tienda o por internet?

La gran mayoría se pueden comprar en las plataformas de venta de cada editorial. En estos casos, EGIBIDE no puede hacerse cargo de su instalación y mantenimiento.

## 5. Lizentziak itzul edo alda ditzaket?

Ez. Erosketa egiten den unean, erositako lizentzien araberako kode batzuk esleitzen dira. Horregatik, oso garrantzitsua da zure semeak edo alabak egingo dituen maila, hizkuntza-eredua eta hautazkoak behar bezala ezagutzea.

## 5. ¿Puedo devolver o cambiar las licencias?

No. En el momento que se realiza la compra se asignan una serie de códigos en base a las licencias que se han comprado, por eso es de gran importancia que conozca correctamente el curso y el modelo lingüístico que realizará su hijo/a

## 6. Paperezko liburuak denda batean edo interneten bidez eros ditzaket?

Bai. EGIBIDEk egiten dituen apunteak izan ezik (batxilergoan bakarrik), paperezko liburu guztiak EGIBIDEtik kanpo eros daitezke. Kasu horietan, EGIBIDEk ez ditu bere gain hartuko behar ez bezala erosi edo lortu diren liburuak.

## 6. ¿Puedo comprar los libros en papel en una tienda o por internet?

Sí. Excepto los apuntes que realiza EGIBIDE (solamente en bachillerato), todos los libros en papel pueden comprarse fuera de EGIBIDE. En estos casos, EGIBIDE no se hará cargo de los libros que se hayan comprado o conseguido incorrectamente.

## 7. Liburuak paperean itzul edo alda ditzaket?

Erosketan akatsik ez egiteko (adibidez, neba-arreba zahar baten liburu bera erostea), garrantzitsua da EGIBIDEren webgunean argitaratuta dauden mailako liburuen zerrenda kontsultatzea.

Itzulketak inprimaki honen bidez **eskatu** beharko dira, liburuak edota lizentziak entregatzen direnetik gehienez 15 egun naturaleko epean, betiere lizentziak aktibatu ez badira eta liburuak entregatu ziren egoera berean badude (forratu gabe, idatzi gabe, plastikoa ireki gabe …).

## 7. ¿Puedo devolver o cambiar los libros en papel?

Para evitar equivocaciones durante la compra (como, por ejemplo, comprar un libro que ya se tiene de un hermano mayor), es importante consultar el listado de los libros del curso que están publicados en la web de Egibide.

Las devoluciones se deberán de solicitar a través de este **formulario** en un plazo no superior a 15 días naturales desde la fecha de entrega de los libros y/o licencias siempre y cuando las licencias no se hayan activado y los libros estén en el mismo estado en que se entregaron (sin forrar, sin escribir, sin el plástico abierto en caso de que lo tuviera …)

Epe hau igarotakoan, kasu hauetan baino ez da itzulketarik egingo:
- Ikaslearen edo haren ardurapeko senideen gaixotasun luzea (egoera egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria).
- Ikasketetan ohiko dedikazioa izatea eragozten duen lanpostu batean jartzea (matrikularen ondorengo data duen lan-kontratuaren fotokopia).
- Unibertsitate-ikasketetan edo LHn matrikulatzea, edota jatorrizko ikastetxean errepikatzea (matrikula hori egiaztatzen duen ziurtagiria).
- Familia- edo pertsona-motako betebeharrak (egoera zehazten duen zinpeko aitorpena, eta eskaera baloratu ahal izateko egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea).

Pasado este plazo, sólo se realizará devolución en estos casos:
- Enfermedad prolongada del alumno o alumna, o de familiares a su cargo (Certificado médico que acredite la situación)
- Incorporación a un puesto de trabajo que impida la normal dedicación al estudio (Fotocopia del contrato de trabajo de fecha posterior a la matrícula)
- Matrícula en estudios universitarios, FP o repetición en centro de procedencia (Certificado que acredita dicha matrícula)
- Obligaciones de tipo familiar o personal (Declaración jurada en la que se detalle la situación y aportar documentación que acredite la misma para ser valorada la solicitud)

## GAILU DIGITALA

### 8. Zer gailu digital mota behar da EGIBIDEn?

DBHrako derrigorrezkoa da Chromebook bat izatea.

Batxilergorako ez da inolako mota zehatzik eskatzen, ordenagailu pertsonala izan baitaiteke (Chromebook, MAC edo Windows). Ikasleen trebetasunen, ohituren eta erosotasunaren araberakoa izango da (pantaila handiagoa, idazteko teklatuaren erosotasuna, etab.).

Edozein etapatan kontuan hartu behar dena da gailuak aurreko ikastetxetik liberatuta egon behar duela.

### 9. Eskura dudan gailu bat erabiltzen jarrai dezaket?

Daukazun gailua erabiltzen jarrai dezakezu, betiere egingo duzun hezkuntza-etaparen ezaugarrietako bat bada.

### 10. EGIBIDEk emandako gailu bat lor dezaket?

Hezkuntza Sailaren dirulaguntza jaso ondoren, EGIBIDEk ordenagailu eramangarriak erosi zituen, ikasleei erraztasunak emateko. Ikasturte honi begira, ikasle berriek beren hezkuntza-etapari dagokion eramangarria eskatu ahal izango dute erosketa-prozesuan zehar.

**DBH**: erosteko prozesuan, ikasleek hiru aukera dituzte:

a) erosketa horri ikastetxeak utzitako ordenagailu pertsonal baten eskaera gehitzea (Chromebook). EGIBIDEk ezin du bermatu ikasle guztientzako izakinik dagoenik; beraz, esleipena eskaera-ordenaren arabera egingo da.

## DISPOSITIVO DIGITAL

### 8. ¿Qué modelo de dispositivo digital se necesita en EGIBIDE?

Para la ESO es obligatorio que sea un Chromebook.

Para Bachillerato no se exige ningún tipo concreto pudiendo ser ordenador personal (Chromebook, MAC o Windows). Dependerá de las destrezas, costumbres y comodidad del alumnado (pantalla más grande, comodidad de teclado para escribir, etc..).

Lo que sí hay que tener en cuenta para cualquier etapa es que el dispositivo tiene que estar liberado desde su centro escolar anterior.

### 9. ¿Puedo seguir utilizando un dispositivo del que ya disponga?

Puedes seguir usando el dispositivo que tengas, siempre y cuando sea de las características de la etapa educativa que vayas a cursar.

### 10. ¿Puedo acceder a un dispositivo facilitado por EGIBIDE?

Tras la concesión de una subvención del Departamento de Educación, EGIBIDE adquirió ordenadores portátiles para facilitar al alumnado. De cara a este curso el alumnado podrá solicitar durante el proceso de compra el portátil correspondiente a su etapa educativa.

**ESO**: durante el proceso de compra el alumnado tiene tres opciones:

a) añadir a dicha compra la solicitud de un ordenador personal cedido por el centro (Chromebook). EGIBIDE no puede garantizar que haya existencias para todo el alumnado, por lo que la asignación se realizará por orden de solicitud.

Entregatzen diren ekipoak 4 urtera arteko erabilera izan dezakete, eta horiek aztertu egin dira entregatu aurretik nola funtzionatzen duten egiaztatzeko.
b) Chromebook berria erostea
c) bere jabetzako Chromebook bat erabiltzea eta erosketari Google education lizentzia gehitzea.

**BATXILERGOA:** erosteko prozesuan, 2025-2026 ikasturtean EGIBIDEn Batxilergoa **ikasi ez duten** ikasleek bi aukera dituzte:

a) erosketa horri lagapenean dagoen ordenagailu pertsonal baten onarpena gehitzea.
b) bere jabetzako gailu digital bat erabiltzea

## DIRULAGUNTZA

### 11. Ba al dago lizentzia digitalak eta paperezko liburuak erosteko diru bekarik?

Ez. Eskola-materialaren beka orokorraren barruan sartzen da.

## ERABILERA-ARAZOAK

### 12. Zer egin behar dut nire seme-alabari ez bazaio funtzionatzen EGIBIDEko gailua edota lizentziak?

Ikaslea eta bere familia izango dira dispositiboaren arduradunak eta, beraz, gailuaren zainketa orokorraren arduradunak. Ikastetxea arduratuko da konponketa kudeatzeaz.

EGIBIDEren bidez eskuratutako lizentzia digitalekin arazo teknikoren bat egonez gero, ikasleak horren berri eman beharko die gelako irakasleei, gero ikastetxeko langileek konpondu ahal izan dezaten.

Los equipos que se entreguen pueden haber tenido hasta un uso de 4 años habiendo sido revisados para la comprobación de su funcionamiento antes de la entrega.
b) compra de un Chromebook nuevo
c) usar un Chromebook de su propiedad y añadir a la compra la licencia Google education

**BACHILLERATO:** durante el proceso de compra el alumnado que durante el curso 2025-2026 **no ha estudiado** Bachillerato en EGIBIDE tiene dos opciones:

a) añadir a dicha compra la aceptación de un ordenador personal en cesión.
b) usar un dispositivo digital de su propiedad

## SUBVENCIÓN

### 11. ¿Existe beca por la compra de las licencias digitales y libros en papel?

No. Estas se incluyen dentro de la beca general de material escolar

## PROBLEMAS DE USO

### 12. ¿Qué tengo que hacer si a mi hijo/a no le funciona el dispositivo digital de EGIBIDE o las licencias?

El alumno/a y su familia serán los responsables del dispositivo y por tanto los responsables del cuidado general del dispositivo. Siendo el Centro el encargado de gestionar la reparación del mismo.

En caso de haber algún problema técnico con las licencias digitales adquiridas a través de EGIBIDE, el alumno/a deberá ponerlo en conocimiento del profesorado del aula para que posteriormente pueda ser resuelto por el personal del centro.